

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 532

*EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez zenbait laborategi izendatzen baitira Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 16ko Aginduan aipatzen diren kontrol ofizialetarako laginen analisiak egiteko. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten da.*

Europar Batasuneko araudiarekin bat etorritik, Batasuneko estatuek zaindu egin behar dute pentsuei eta elikagaiei buruzko legeria eta animalien osasunari eta ongizateari buruzko araudia betetzen direla, eta jarraipena egin eta egiaztatu behar dute enpresek arau horietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ekoizpenaren, transformazioaren eta banaketaren etapa guztietan. Horretarako, kontrol ofizialak ezarri behar dituzte.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko (EB) 2017/625 Erregelamenduaren xedea da kontrol ofizialetan gorde behar diren arau orokorrak ezartzea, arauak betetzen direla ziurtatzeko; izan ere, erregelamendu hori elikagaien eta pentsuen legedia eta animalien osasunari eta ongizateari, landareen osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak aplikatzen direla bermatzeko egiten diren kontrolei eta jarduera ofizialei buruzkoa da.

Espainiako Estatuan, elikakatearen kontrol ofizialerako planen diseinua eta aplikazioa Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legean daude araututa, funtsean. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legeak 101.2 artikuluan ezartzen duenez, EAEko administrazio publikoek ezarriko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztu edo merkaturatutako nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuetarako kontrol-planak, arriskuei aurre egiteko eta ekintzen koordinazio-printzipioak betetzeko.

Aurrekoa aplikatzeko, Elikagaien Katea Kontrolatzeko Plan Nazionalaren jarraibide orokorrekin koordinatuta eta haiekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onartu zen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 16ko Aginduaren bidez. Horrez gainera, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2021eko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana eguneratu da.

Goian aipatutako aginduaren ebazpen-ataleko laugarren zenbakiaren arabera, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren ebazpena beharko da laborategi berriak izendatzeko, edo dagoeneko izendatuta dauden laborategiei kontrol edo analitika berriak esleitzeko, edo, hala badagokio, izendapen horiek baliogabetzeko. Izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira, eta Estatuko Administrazio Orokorriari haien berri eman beharko zaio.

Aurreko hori guztia aplikatzeko, 2024ko maiatzaren 6an (2024ko EHAA, 87. zk.), Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2024ko apirilaren 22ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez laborategi batzuk izendatzen baitira 2016ko irailaren 16ko Aginduan aipatzen diren kontrol ofizialetarako laginen analisiak egiteko –2016ko irailaren 16ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten baita–.

Aurrekoa gorabehera, bi laborategi berriak eta haien analisi-teknikak sartu direnez, beharrezkoa da izendatutako laborategien zerrenda berria izendatzea eta argitaratzea, 2024ko apirilaren 22ko Ebazpenaren bidez argitaratutakoaren orde.

Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eta II. eranskinetan adierazitako laborategiak laborategi ofizial izendatzea, kontrol ofizialen eta bestelako jarduera ofizialen ondoriozko laginen analisiak, entseguak eta diagnostikoak egiteko, bat etorri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 37. artikuluekin eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 16ko Aginduaren ebazpen-ataleko laugarren zerbakiarekin (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten da).

Bigarrena.– I. eranskinetako laborategien izendapenak irismen hau du: egiaztapen-espeditetako eranskin teknikoan kontrol ofizialeko laginetarako jasota dauden entsegu guztiak eta zerbitzu-zorroan bestelako jarduera ofizialen ondoriozko laginetarako jasota dauden entsegu guztiak.

Hirugarrena.– II. eranskinetako laborategien izendapenak irismen hau du: laborategiaren zerbitzu-zorroan bestelako jarduera ofizialen ondoriozko laginetarako jasota dauden entsegu guztiak.

Laugarrena.– Izendatutako laborategiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

a) Egiaztapenerako eranskin teknikoan adierazitako teknikei, matrizeei eta analitoei eustea, eta nekazaritza eta abeltzaintzako eskumena duen zuzendaritzari eranskin tekniko horretan egiten duten edozein aldaketaren berri ematea.

b) Beharrezkoak diren mekanismoak izatea koordinazio eta elkarlan efizientea eta eraginkorra bermatzeko laborategiaren eta agintaritza eskudunaren artean, bai eta laborategiaren eta Erreferentziako Laborategi Nazionalaren (ELN) artean ere, halakorik badago.

c) ELNk –edo halakorik ez badago, Europar Batasuneko Erreferentziako Laborategiak (EB-EL)– antolatzen dituen laborategien arteko konparazio-entseguetan (gaitasun-entseguak) parte hartzea, izendapenaren xede izan diren entsegu-prozedurekin, prozedura horien gaitasun teknikoa frogatzeko.

d) Laborategi pribatuen kasuan, erantzukizun zibil profesionaleko aseguruia edo bestelako berme baliokidea izatea, zerbitzua ematean hartzailearen edo hirugarren baten osasunean edo segurtasunean edo hartzailearen segurtasun finantzarioan eragin ditzaketen kalteak estaltzeko.

e) Organo eskudunari eskatzen dituen datuak eta dokumentuak ematea, organo horrek egiaztatzen laborategiak betetzen dituela ezarritako betekizun galdagarriak eta ikus dezan zer jarduera egin dituen.

f) Nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzari kontrol ofizialetan edo bestelako jarduera ofizialetan hartutako laginekin egindako analisi, entsegu edo diagnostikoen emaitzak jakinaraztea berehala, gizakien osasunerako, animalien osasunerako edo landare-osasunerako arriskuren bat adierazten badute, edo, GEOei eta produktu fitosanitarioei dagokienez, ingurumenerako arriskua edo ez-betetzereen baten probabilitatea adierazten badute.

g) Inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik eza ziurtatzea laborategi ofizial gisa dagozkien eginkizunak betetzeari dagokienez.

h) Gardentasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak edukitzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko (EB) 2017/625 Erregelamenduan adierazitakoaren arabera.

Bosgarrena.– Nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak laborategiari izendapena osoki edo partzialki kenduko dio, neurri zuzentzaile egokiak hartzen ez baditu egoera hauetako edozein agerian uzten duen auditoretza edo ikuskaritza baten emaitza ikusita:

- a) Izendatua izateko finkatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.
- b) Ebazpen honen ebazpen-ataleko 3. zenbakian adierazitako konpromisoak ez betetzea.
- c) Laborategien arteko konparazio-probetan eskatutako mailara ez iristea.
- d) Laborategiak kontrol ofizialak egiteko laborategiaren izendapena baliogabetzeko eskatzea.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta Estatuko Administrazio Orokorrean arlo horretan eskumena duen ministerioari jakinaraztea.

Zazpigarrena.– Ondoriorik gabe uztea Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2024ko apirilaren 22ko Ebazpena, zeinaren bidez laborategi batzuk izendatzen baitira 2016ko irailaren 16ko Aginduan aipatzen diren kontrol ofizialetarako laginen analisiak egiteko –2016ko irailaren 16ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten baita–.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,  
ONEKA ZABALLA GONZALEZ.

## I. ERANSKINA

## KONTROL OFIZIALETARAKO ETA BESTELAKO JARDUERA OFIZIALETARAKO IZENDATUTAKO LABORATEGIAK

Laborategia	ENAC ziurtagiria
Aenor Confía, S.A.U.	731/LE1555
Agrolab Ibérica, S.L.	258/LE530 258/LE2068
Alkemi, S.A.	229/LE519
Anfaco – Cecopesca – Pontevedra	96/LE230
Aquimisa, S.L.	221/LE451
Nekazaritzako Elikagaien Industriaren Ikerketa Elkartea (AINIA)	97/LE211
Euskal Autonomía Erkidegoko eta Nafarroako Behi eta Ardi Esne Ekoizleen Elkartea (ALVO)	174/LE381
Biotecnal, S.A.	408/LE582
Elikagaien Teknologia eta Segurtasunaren Zentro Nazionala (CNTA)	108/LE283
Haroko Enologia Estazioa	183/LE407
Eurofins Ecosur, S.A.	354/LE709
Eurofins Iproma, S.L.	103/LE268
Eurofins Sisca AQUIQ, S.L.	497/LE998
AZTI Fundazioa	167/LE320
Imegen – Medikuntza Genomikoko Institutua, S.L.	972/LE1835
Sarriako Institutu Kimikoa (IQS)	196/LE344
Ingurumen Diagnostikoaren eta Uraren Azterlanen Institutua (IDAEA-CSIC).	159/LE1177
Koipearen Institutua – CSIC	719/LE1198
Itsas Natura-Natureza Marina, S.L.	470/LE1028
Santanderko Nekazaritzako Elikagaien Laborategia – MAPA	517/LE1040
Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Laborategia	708/LE1460
Aragoiko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategia – Zaragoza	758/LE1462
Laborategi Analitiko Bioklinikoa, S.L. (Pertsona Bakarrekoa)	493/LE1019
Apinevada Laborategia, S.L.	995/LE1935
Nekazaritzako Elikagaien Arbitraje Laborategia – MAPA	181/LE390
Algeteko Albaitaritza Laborategi Nagusia	692/LE1530
Gipuzkoako Urak, S.A. Laborategi Nagusia	549/LE1149

2025eko otsailaren 3a, astelehena

Laborategia	ENAC ziurtagiria
Glutena aztertzeko laborategia – UPV/EHU	774/LE1626
Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Kalitateko eta Berrikuntzako Laborategia	434/LE857 434/LE1057
Bizkaiko Osasun Publikoko Laborategia	132/LE326
Gipuzkoako Osasun Publikoko Laborategia	137/LE328 434/LE857
Aragoiko Gobernuaren Osasun Publikoko Laborategia – Zaragoza	301/LE458
Kantabriako Gobernuaren Osasun Publikoko Laborategia	529/LE697
Asturias Printzerriko Osasun Publikoko Laborategia – Oviedo	199/LE410
Bizkaiko Foru Aldundiko Animalien Osasunerako Laborategia	874/LE1711
Galiziako osasun publikoko laborategia – Lugo	131/LE324
Nafarroako Enologia Laborategia	462/LE878
Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko Enologia Laborategia	756/LE1606
Bilboko Udal Laborategia	151/LE361
Landare Osasuneko Laborategi Nazionala – MAPA	1457/LE2709
Eskalmendi Abeltzaintzako Laborategia. Arabako Foru Aldundia	813/LE1699
Laborategi Kimiko Mikrobiologikoa, S.A.	498/LE806
Errioxako Gobernuaren Eskualde Laborategia	168/LE399
Arabako Laborategi Bromatologikoak, S.A. (ARALAB)	346/LE632
Kudam Laborategiak, S.A.	324/LE670
Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC Laborategiak)	641/LE1375
NEIKER-Nekazaritza Ikeketa eta Garapenerako Euskal Erakundea	615/LE1321
Silliker Ibérica, S.A.U.	257/LE413

## II. ERANSKINA

## BESTE JARDUERA OFIZIAL BATZUETARAKO IZENDATUTAKO LABORATEGIAK

Laborategia
Derioko Landareen Babeserako Zentroa – Bizkaiko Foru Aldundia
Areeiroko Fitopatoloxika Estazioa – Pontevedrako Diputazio Probintziala
Birus, Biroide eta Fitoplasmen Erreferentizazko Laborategia – Valentziako Unibertsitate Politeknikoa